

## **SEHASKETAKO HAURTZOAK GARA**

Kaixo:

Karrikako haur-eskolan gauden txikiak gara: Aiert, Aitor, Julen, Naia, Lur, Xabier, Iosu, Nikolax, Maialen, Iker, Garazi, Eneko, Asier, Ane, Aiora eta Maider. Gure hezitzaileak Pilare, Iosune eta Roxali dira.

Lau hilabete dauzkagula ekarri gaituzte haur-eskolara. Gauza berdintsua gertatzen da Iturriotzekoekin ere. Lehenengo egunetan ama edo aita geratzen da gurekin denbora jakin batean eta poliki-poliki, gure jarrera ona dela ikusiz gain, gure egonaldia luzatuz joaten da, normaltasunera iritsi arte.

Goizetan ordu desberdinetan etortzen gara eta 9,30ak alderako taldea osatzen da. Aita edo ama gelaraino sartzten dira gurekin; berokia kendu, hamakan edo lurrean jarri eta jostailuren bat eskaintzen diguten bitartean gure hezitzailearekin hitz egiten dute: nola pasa dugun gaua, noiz esnatu garen, ongi gosaldu dugun, zein unetan aurkitzen garen, galderak, gomendioak... Ikusten duzuenek, gu gara protagonistak.

Oso txikiak gara eta jarraipen zuzena behar dugu. Egunero gure goizeko lo-kuluxkak egiten ditugu, behar dugun garaian jan eta lasai-lasai gaudenean gelan edo kalean jostatzen egoten gara gauza desberdinak manipulatur, esperimatur eta aurkituz. Garai honetan objektuak txupatur, ukituz, astinduz, boteaz... eta abar aurkikuntza ugari egiten dugu, gure mundu txikia zabaltzen doan bitartean. Kanean ere gustuko gauza asko aurkitzen ditugu, gure ahate lagunak, erreka, zakurra, Triniren oiloak...

Bazkal garaia oso atsegina egiten zaigu. Hasera batean besoetan hartzen dugu tutua, gero hezitzaileek hamaketan jarrita kutxarekin purea eta frutak ematen dizkigute eta gorputz aldetik trebezi gehiago lortzen dugunean, mahaian bazkaltzera pasatzen gara. Bai ongi bazkaltzen dugula lagunekin mahai baten inguruan, platera aurrean dugula, gure saiakerak egiten janaria ahora eramateko.

Tripa bete ondoren prest gaude siestara joateko baina lehenago pardela aldatu behar digute eta hain da atsegina une hau! Arropa kentzea, gure gorputza ukitzea... Begiradak, irribarreak eta solasaldi goxoak sortzen dira gu eta hezitzailearen artean.

Siestako ordua!! Sssssssss!!

Esnatu ahala jzaten gaituzte. Behar ahala meriendatzen dugu eta hemendik aurrera hasten dira etortzen gure bila aita, ama, amon-aitonak. Orain badugu arratsalde guztia hauekin egoteko, gutaz goza eta disfruta dezaten. Berokiak jantzi eta hezitzaileari muxu eman ondoren bagoaz, BIHAR ARTE LAGUNAK!!

Ah!! Ez ahaztu nire koaderno aitatxo!!. Koadernoan egunean zehar bizitutakoa eta egindakoa idazten dute gure hezitzaileak eta.